

# Miguel Indurainek eman dio hasiera Astigarragan aurtengo txotx garaiari

■ Aurtengo sagardo denboraldiari hasiera ofiziala emango diote bihar. Horren berri emateko, Astigarraga eta inguruko sagardo egileek Sagardo Berriaren Eguna ospatu zuten atzo, Udalarekin batera. Aurtengo lehen upela Miguel Indurain atarrabiarrak ireki zuen, «sagardo berria» ohiko esaldiarekin.

Iñaki Petxarroman / Donostia

ASTIGARRAGAKO txotx denboraldia ofizialki ireki zuten atzo Astigarrako sagardo egileek herriko Petritegi sagardotegian. Aurtengo gonbidatu nagusia Miguel Indurain txirrindulari ohi atarrabiarra izan zen. Hari egokitu zitzaion denboraldiari hasiera ematea, «sagardo berria» esaldi ezagunarekin. Txistuaren doinuak lagunduta eta dantzari batek aurrekoa dantzatu ondoren, kazetari, sagardo egile, euskal kulturaren munduko hainbat pertsona ezagun eta kargu publiko ugari begira zituela hartu zuen Indurainek aurtengo lehen sagardo tragoa.

Aurretik, Astigarrako Udalean, Mikel Zabalza herriko alkateak, Iñaki Txueka Gipuzkoako Diputazioko Nekazaritza diputatuak eta sagardo egileen ordezkari zenbaitek prentsaurrekoa eman

inguruko nondik norakoak argituzeko.

Mikel Zabalza alkateak esan zuen aurtengo sagar uzta itzkoa baino urriagoa izan dela. «Eguraldi gorabeheratsuen ondorioz, udan eurite ugari eta irallaren 15etik aurrera lehortea izan baitziren, sagarra ez zen zuhaitzean behar bezala heldu», esan zuen. Iaz Gipuzkoan erabili zen sagar kopuru osoaren %65 probintziakoa zen; aurtun, aldiz, %45 bakarrik. Iñaki Txueka Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza diputatuak gogoratu zuen aurtun Europako gaitz batek jo dituela Gipuzkoako sagarrondoak, eta produkzioaren zati handi bat galdu egin dela.

Hala ere, sagardoa kalitate onekoa dela ziurtatu zuen, eta eguraldiaren eragina alkohol mailan bakarrik nabaritu dela, hamarren gutxi batzuegatik ez baita sei graduetara iritsiko. Alkateak eman zituen datuen arabera, aurtun zortzi milioi litro sagardo egin dira probintzian, eta gehiena Astigarraga aldean egin da.

Alkatearen arabera, gero eta gehiago kontsumitzen da sagardoa, eta horretan eragin handia du sagardo egileak egiten ari diren ahaleginak, «kalitatezko eta ondo aurkeztutako produktua» egiteko. Alkateak nabarmendu zuen sagardoa egiteko teknologia modernoak eta sagardo egile bakoitzaren artisautza ohiturak uzartzea: «Horregatik, bizi-bizilagintzen du upeletik zuzenean edateko ohiturak. Hain zuzen ere, kontsumitzaileen produktuzailarekin duen harreman



Miguel Indurain, Andoni Egañarekin eta Petritegi sagardotegiko arduradunarekin. Aurtun berak zabaldu du txotx denboraldia.

ANDER GILLENENA

zuzen horrek bereizten du sagardoa beste kontsumo batzuetatik.

Herrialdean produzitzen den sagardo guztiaren zati nagusia Gipuzkoan kontsumitzen da, %60 inguru; %35 edo Euskal

Herriko gainerako probintzietan; eta gainerako %5a Espainian. Sagardotegien denboraldiak gero eta indar handiagoa duen arren, produzitzen den sagardoa oso zati txiki bat kontsumitzen da upeletik, hain zuzen ere,

%1-2. Gainerakoa botiletan saltzen da.

Miguel Zapiainek, Taldea sagardo egileen elkartearen lehendakariak, esan zuen azken urteotan beste kontsumo mota bat indartzen ari dela: tabernaz

tabernako txikiteoa. Horretan, hainbat tabernari egiten ari diren ahalegina eskertu zuen Zapiainek.

**Sagardo Etxea, gero eta gertuago?**

■ Astigarrako udalbatzar aretora bildutakoek Sagardo Etxearen gaia aipatu zuten azkenik. Jakina denez, Astigarraga inguruko egileak aspaldi ari dira eskatzen sagardoaren historia eta produkzioaren gorabeherak agertuko dituen gune bat izatea, museo antzeko zerbitzu.

Sagardo egileek onartu zuten gero eta prestatuago dagoela idela, nahiz eta oraindik ez duten zehaztu zer izango den: museo bakarrik, museo eta laboratorioria... Ildo horretan, hurrengo hilabeteetan erakuntzaren izena zehazten saiatuko direla esan zuten.

Iñaki Txueka Nekazaritza diputatuak, aldiz, gehitu zuen Administrazioak begi onez ikusten duela proiektua, baina bi baldintza jartzeko laguntzeko: Batetik, ez dadila museoa izan bakarrik; alegia, gune integrala izan dadila, sektorearen zerbitzuak beregain hartuko dituen. Bestetik, Sagardo Etxea non jarri sektoreko partaideek erabakitzea, gehiengoz. X

## ◆ Miguel Indurain ◆ Txirrindulari ohi

### «Ardoa nahiago dut»

FRANTZIAKO Tourra bost aldiz irabazi duen Miguel Indurain atarrabiarra izan zen atzoko Sagardo Berriaren Eguneko protagonista nagusia, eta berak eman zion hasiera txotx denboraldiari.

■ **Gustura Astigarragako sagardo egileen gonbitarekin?**

Bai, gonbidatu naute. Ezagutzen ditut hona etortzen diren batzuk, eta denbora dudanez, oso gustura.

■ **Gustatzen zaizu sagardotegietara etortzea, edo lehen aldida zatozena?**

Ez, behin baino gehiagotan etorri naiz. Lehiatzen ari nintzeanean ezin nuen etorri entrenatzeko garaia zelako, eta zaindu egin

behar nuelako. Baina behin baino gehiagotan etorri naiz.

■ **Sagardoa gustatzen al zaizu?**

Ez asko. Haren inguruan jaten dena gehiago gustatzen zait. Sagardoa bada, edan egiten dut, baina ez oso gustura, pixka bat garratza baita.

■ **Gustatzen zaizu honelakoetan gonbidatu gisa etortzea, edo nahiago zenuke deituko ez ballute?**

Ez, honelako lekuak ondo daude. Badaude leku txarragoak. Hona etortzea ondo dago, bazkaldu eta lagunekin egoteko parada duzulako. Bestela nahiago nuke honela ez ibiltzea, baina konpromezu batzuek ezin ezetik esan.

■ **Aurtun baduzu txotx egiteko asmorik?**

Bai, beti ateratzen da bazkari edo afariren bat. Hemen lagunak dauzkate, eta andreak ere badauzka, hemengoak denez. Horregatik, zerbitzu aterako dela ueste dut.

■ **Zer nahiago duzu: sagardoa ala ardoa?**

Ardoa. Probatzeak kalterik ez dakar, baina normalean ez dut edaten.

■ **Orain lehen galarazita zentuen plazer batzuek gozatzeko aukera duzu, ezta?**

Beno, lehen ere egiten nituen halakoak. Ez dut inoiz oso bizi-modu zorrotza eraman. Orain maizago etorri naiteke, hori bai.

■ **Lehen baino zenbat kilo gehiago dituzu?**

Zortzi bat.